

Bilbon, Lankide Aurrezki Kutxak Areatzan duen egoitza berriztatuan bildu da Euskaltzaindia, 1984.eko martxoaren 30ean, arratsaldeko lauretan. Bertara etorri dira: L. Villasante, burua, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak, L. Akesolo, J. A. Arana, R. Badiola, J. Bilbao, P. Charritton, J. G. Etxebarria, J. Fdz. Setien, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. Oleaga, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe, P. Uribarren eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. Gorostiaga, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta K. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Goizeko bilkuraren berri

Bi gai nagusi erabili dira goizeko batzarrean: A. Irigaray zenaren hutsartea betetzeko bozketak, eta maileguzko hitzen bukaerari dagokion erabaki-proposamena aztertu eta onartzea.

Euskaltzain berriaren izendapena. Araudiak dioen epe barnean aurkeztutako izenak hiru izan dira: *Patxi Zabaleta* jauna, A. Irigoyen, F. Krutwig eta J. L. Davant euskaltzainek izenpetua. *Pello Salaburu*, J. M. Satrustegi, J. Haritschelhar, J. San Martin eta E. Knörr jaunen izenean. *J. Apecechea*, P. Altuna, P. Lafitte eta X. Diharce jaunen babesean.

Batzar agiri honen buruan aipaturiko hamahiru euskaltzainek bestalde bost euskaltzainkidek bidali dute bozketako euren ahalmena. K. Mitxelenak E. Knörrri eman dio bere eskubidea, J. Gorostiagak, J. M. Satrustegiri, P. Larzabalek, J. L. Davanti, J. Haritschelhar eta J. Hiriart-Urrutyk, E. Larreri. Hemezortzi txartel sartu dira, beraz, bozketan.

Arautegian gertakizunari dagozkion artikuluak irakurri ditu lehenik Euskaltzainburuak, eta lehen itzulian ez du inork legezko gehiengorik lortu. Elkarrizketa labur baten ondoren egin da bigarren bozketak, eta aldi honetan Pello Salaburuk 13 botz lortu ditu, Patxi Zabaletak 4, eta J. Apececheak bat. Pello Salaburu baztandarrak, beraz, gehiengoa lortu du eta euskaltzain oso izendatu du batzarrak.

Maileguzko hitzen bukaera. Azken batzarrean eskatutako laburpena zehaztuz, A. Irigoyen jaunak egin du gai korapilotsu honen erabaki-proposamena. Gaur aurkeztutako txostena onartu du Euskaltzaindiak, aurrez erabakitako puntuak ere barne direlarik. Erabaki hauen indarra eztabaidatu dute batzartuek gero. Euskaraz hitz berriak maileguan hartzeko premia legokeenean nola har litezkeen, esan nahi da bakarrik. Gida arauak izan nahi lukete.

Aurkezlearen lanak laudoriozko aipamena izan du.

Gaiarekin jarraituz, datorren hileko batzarrean mailegu hitzen beste atal bat aztertuko da: *g, j, i, hi-, y*, letrek hitz-hasieran ala hitz-barnean sortu ohi dituzten arazoena, alegia.

Eskuarteko gaiak

Akademien harremanei jarraipena emanez, Marino Donega A. Galegaren idazkaria Bilbon egon berri dela, esan du J. M. Satrustegik. Ekainean biltzeko asmoa baguenen ere, Urria denontzat egokiago dela ikusi da. Bitartean Errege ikusteko jesticioak bizkortzea komeni da, eta galegoak arduratuko dira eskariak.

Parisen egin berri den *Expolangues* izeneko liburu erakusketa aipatu du J. L. Lizundiak. Liburuena baino gehiago, Europako hizkuntzen presentzia omen da azokaren helburua. Baikorra gertatu omen da ekintza hau, baina ikusiak-ikusi, hainbeste liburu gabe eta kalegiro hobean antolatu behar omen litzateke beste aldian.

Egun hauetan Bilbon bildu garelarik, J. Gorostiaga euskaltzaina ikusten izan zen Zuzendaritzako batzordeño bat ostegun arratsaldean. Pozik hartu gintuen eta luzaz mintzatu ginen. Oleaga zenaren ehun-urteburua dela eta Euskaltzaindiak egin nahi duen goratzarrerako txosten bat eskatu zitzaion, eta egingo duela hitzeman zigun. Erkiaga ikustera joateko asmoa era baguenen, baina ez genuen bere etxetik erantzunik jaso. Kanpoan zatekeen, nunbait.

Udazkeneko Gramatikaren X. Biltzarrari buruz, Antolakizun batzordeak urrats batzu eman dituela, esan da. Iruñeko alkatea ikusi ondoren Udalaren harmarriko irudia erabiltzeko baimena badugu. Kongreso lanetarako tokia ere bideraturik dago.

Batzordeen berri

Argitalpenen batzordea bildu zen ostegunean, arratsaldeko lau t'erdietan Bizkaiko Diputazio Jauregian. 1983.eko argitalpen guzieren berri eman zuen lehenik R. Badiolak. Beste arazo batzuren artean, aspaldi argitara nahi genuen Azkue-ren hiztegia aipatu zen. Villasanteren hitzaurrea eta Mitxelenaren "Fuentes del Diccionario de Azkue", beronek egindako zuzenketen hiztegitxo batekin, sartuko dira argitalpen honetan. Hiztegi honen erdara-euskara delako fitxeroa berreskuratu dela jakinerazi du arduradunak.

Zuzenketek asko berantzen dutela zenbait idazleen eskuetan, esan du argitalpenen eragileak. Hemendik aurrera, hogeit egunen buruan itzuli ez diren lanen zuzenketak, beste norbaitek zuzendu eta argitaratzea erabaki da. **Euskera** agerkariaren gerra ondoreko zenbakiak oraikoz ez birargitaratzea erabaki da.

Jagon Sailburuak esanaren arabera, JAGON-2, bertsolariei buruz egina den liburua izango da.

Euskararen Lekukoen plangintza ere aipatu da, eta eskuartean diren pare bat libururen edukina aztertzeko izenak eman dira.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi

Pertsona Izendegiaren aurkezpena

Hileroko batzarraren ondoren, *Euskal Izendegiaren* hirugarren argitalpena aurkeztu da toki berean. Iñaki Gorroñok eman die batzartuei ongiatorria Lan kide Aurrezkiaren izenean. J. M. Satrustegik eman du argitalpen honen berri. Beste bi argitalpenetan bultzagarri zen liburu honen eragina, izen berrien bila baitzebilten herria. Guraso bakoitzak bere izenak sor ditzakeelarik azken erabakien eremu zaballean, izen egokienak jaso eta beste asko baztertzen hasteko ordua etorri zaio Izendegiari.

L. Villasante mintzatu da azkenik. Egile baten lana zergatik izan daitekeen Euskaltzaindiaren bilduma ofiziala, agertzera eman du. Batzutan, zuzenean egin ohi ditu Euskaltzaindiak, batzordeen bidez, bere lanak; eta beste batzutan, bere aginduz egin ditzake norbaitek. Lehen kasuan, Euskaltzaindiarena da erantzunkizun osoa. Bigarrenean, lana onartu arren, egilearena da puntu bakoitzaren erantzunkizuna. Esker-rak eman dizkio Lan kide Aurrezkiari, lehen ere elkarrekin egindako lanak gogoraziz.